



ARAUAK

ARROPA eta OBJEKTU PERTSONALAK:

Haur-eskolara ekarri eta bertan utzi behar diren gauzak:

- Pixoihal sorta
- Eskuzapi sorta
- Ukendu bereziak
- Aldatzeko arropa
- Oihal eta plastikozko lerre-zapiak
- Txupakia kate batez lotua

Umearen arropan eta objektu pertsonaletan beren izena jarri behar da. Hau egin ezean eta zerbait galduz gero, haur-eskolak ez du erantzukizunik izango.

Komenigarria da umeak arropa eta oinetako erosoak janzteak, erraz mugitzeko, aldatzeko edota bainugelara joateko. Debeakututa dago umeek ilean kakoak jarrita etortzea. Kakoen ordezkariak gomak edo zintak ekar daitezke. Pixoihalak irekiak izan behar dute eta ez kulerokoak.

JOSTAILUAK

Haur-eskolan umeen aulkiak utz daitezke.

Umeek erabiltzen duten materiala haurzaindegikoa izango da eta ezingo dute etxetik ekarri, inondik inora, jostailurik. Modu honetan jostailu propioak galtzea edo umeen artean gaizkiulertuak izatea ekidindo da.

HIZKUNTZA

Haur Eskola hirueleduna da, euskera, gaztelania, eta ingelesa, euskararen erabilera nagusitzen delarik. Ingeleseko klaseak urte betetik aurrerako umeentzat izango dira. Maca's House-ko metodoa erabiliko dugu eta bertako irakasleak gure haur-eskoletara etorriko dira.

SENDAGAIAK

Umeak edozein alergia edo dieta bereziren bat jarraitzen badu, berehala jakinarazi behar diguzue.

Gaixorik dauden umeak ezingo dira haur-eskolara etorri. Horrela, edozein kutsadura saihestu eta guztien ongizatea ziurtatzen baita.

Umea gaixo egotea, jarraian aipatzen diren sintomak izatean datza: sukarra duenean, nahiz eta hamarren baxuk besterik ez izan; gastroenteritis; konjuntibitis; bronkitis...

Umeak sukarra izan badu, gutxienez 24 ordu igaro behar ditu sukarra jaitsi denetik haur eskolara etortzeko.





WEBCAMS

Gurasoek erabiltzaile eta pasahitz bat izango dute beren seme-alabak arlo pribatuan ikusteko. Hortaz, haurrak haien ikaskideekin jolasten ikasteko aukera izango dute.

JATEKOAK

Bularreko hurrei dagokionez, egunero etxetik ekar dezakete biberioa. Beste aukera jatekoak haur-eskolan ekartzea eta bertan uztea izango da.

- Biberoi bat
- Ontzi bat esne
- Zerealak
- Ur botila

Aipatutakoak ekarriz gero, egunero dagokion hartualdia prestatuko zaio.

Beste haurren bazkariari dagokionez, bi aukera daude:

- Egunero hartu behar dituzten janariak (pureak) ekarri eta haur-eskolako hezitzaileei eman. Janari hauek mikrouhinean sar daitezken ontzitan ekarri behar dira eta ez termo ontzi edo ontzi kristaldunetan. Beste aldetik, debekatuta dago janari izoztuak ekartzea.
- Etxeko Janak enpresa bidez egiten den catering zerbitzua. Bertan menu desberdinak daude umearen adinaren arabera.
- Bazkari solidoentzarako, beharrezkoa da katerina kontratatzea.

Askariari dagokionez ere bi aukera daude:

- Askaria egunero etxetik ekartzea: poto-txikiak, jogurtak, solidoak edo fruta (haur-eskolan irabiatuko dira)
- Katerina: Askariari dagokionez, irabiatutako fruta naturala izango da txikientzat eta, 18 hilabetetik aurrerakoek, bi aukera izango dituzte: bokata eta fruta zatiak ala bokata eta fruta irabiatua.

Kateringa kontratatzea ez dago hileroko gastuetan barneratuta. Horregatik, hauen kostua prezioen zerrendan zehaztuta daude.

Jangelako ordutegiak hauexek dira:

- Gosariak: 7:30etatik 8:45etara
 - Bazkaria: 11:00etatik 12:30etara
- Umeak, 10.30-k baino lehenago egon behar du haur-eskolan jangelaren erabilera egiteko.
- Askaria: 15:30etatik 16:30etara edo 17:30etatik 18:15etara





ORDUTEGIA

Haur-eskola astelehenetik ostiralera irekita dago, 7.30-tik 19.30-tara, abuztuan izan ezik. Abuztuan arratsaldeko 17.30-tan ixten da. Ordutegi honen barruan gurasoek aukeratzen dute umeak egingo duen ordutegia, kontratatu duten bonua kontuan hartuz. Dena dela, ordutegi hau aldatzeko aukera izango dute, txandakako lan ordutegietara moldatzeko.

Matrikula egiterakoan adostutako ordutegiak errespetatu beharko dira. Hala ere, edozein aldaketa egin nahi bada, gurasoek aurretik jakinaren gainean jarriko dute haur-eskola. Etorri ez diren egunak eta orduak ezingo dira metatu, ez eta beste egun batzuetara aldatu.

Ikasturtean zehar, irailatik abuztura, umeak eskubide osoa du hilabeteko oporraldia izateko (hilabete naturala) hilerokoa ordaindu gabe eta haur-eskolan duen lekua gordez.

KUOTAK

Umea onartuta dagoela baieztatzen den egunetik bi egun izango dira erreserba egiteko. Adostutako ordutegian haur-eskolara etorri beharko da umearen fitxa betetzera eta matrikula ordaindu beharko da eskudirutan. Umea, haur-eskolara etorriko ez balitz, emandako diru kopurua ez da eskuratuko.

Umearen fitxan azaltzen den hasierako datak, gehienez hilabeteko atzerapena izango du. Behin hilabetea pasata, kuota osoak egingo dira edo umeak bere matrikula-orria galduko du, medikuaren aginduz izan ezik. Baina beste egoera batzuk ez dira kontuan hartuko, hala nola oporrak, eszedentziak, bajak....

Hileroko kuota hilabetearen 1eta 5 egunen artean egingo da ordainagiri helbideratu bidez. Aparteko orduak egiten badira hurrengo hilerokoan kobratuko dira.

Ordutegian aldaketak egin nahi badira edo umea haur-eskolako zerrendetatik kendu nahi bada, aurreko hilabetearen 27a baino lehen adierazi behar da.





ARAU OROKORRAK

- Ikasgeletara eta jolas gunetara sarrera guztiz debekatuta egongo da. Gurasoak sarreran egongo dira umearen zain
- Haur-eskolako hezitzaileek ez dute umea ezezagunen eskutan utziko. Gurasoek beste norbait bidaltzen badute umearen bila, haur-eskolan abisu eman beharko dute eta nor den zehaztu. Horrelako kasuetan nortasun agiria eskatuko da pertsonaren nortasuna baieztatzeko.
- Jarraipen pertsonalizatua eta eguneroko informazioa gure berezko app-an; hauetan pardelen aldaketak, lotako orduak, bazkaldu dutena... idatziko da.
- Gurasoek, umearekin lotura duen edozein gertaera bereziren berri eman beharko diete haur-eskolako hezitzaileei.
- Gurasoek umeak izandako garapenaren berri izango dute (aurrerapenak, jokaerak, jokoak...)
- Gure iritziz umeak izan ditzazkeen aldaketa nagusiak asteburuan hasi beharko litzateke gauzatzen, besteak beste frutak edo pureak hartzen hasten denean, solidoak jaten hasten denean, esfinterren kontrolarekin hasten denean... Modu honetan, ekintza berriak etxean hastea ezinbestekoa da ondoren guk, haur-eskolan, ekintza horiekin jarraitzeko astean zehar.
- Adin guztietara egokitutako kanpo-jolastokia.





TARIFAK

HAURRAK	0-3 URTE
EGUN ERDIA (gehienez 5 ordu)	248,00 €/hilabe.
EGUN OSOA (5 ordu baino gehiago, gehienez 8 ordu)	298,00 €/hilabe.
HAUR-ESKOLAREN APARTEKO ORDUA	4,20 €/ordua
KATERING BAZKARIA	103,00 €/hilabe.
KATERING ASKARIA	40,00 €/hilabe.

Aparteko ordua 20 minutu pasata kontatuko da

- MATRIKULA: 111 €
(Urteko matrikula, Irailean)

-10% deskontua anaia-arrebengatik

-LANKIDETZA-HITZARMENA %10 deskontua

